

# HERRIKO MUSIKA BANDA: 1864TIK ABIATUZ, ETORKIZUNERA BEGIRA

Josu Mitxelena



“Nola aldatzen diren gauzak...” zioen Hertzainak taldearen kantuak, eta asko aldatu dira bai gure herriko Musika Bandari dagokionez 1864. urtean sortu zenetik. Halaxe da, gezurra badirudi ere XIX. mendean hasi zen gaur dakarkizuedan historia, gure herriko musika mugimenduaren atal nagusi, aitzindari, oinarri dugun Musika Bandarena alegia.

Aipatu 1864. urtean, “Sociedad Filarmónica” izenburupean, herriko seme eta musiko talde batek abian jarri zuen, gurean, gure herriko musika mugimenduaren bilakaeran eta gure herriko historian hain garrantzitsua suertatu den atala. Aurten, Erreneriako Musika Kultur Elkartearen eskutik, gure Musika Bandaren 150. urteurrena ospatzen ari gara “1864-2014 Herri bat, banda bat” lelopean. Hainbat kontzertu, urtean zehar eskaini direnak eta eskainiko direnak, efemeride hau behar bezala ospatzeko. Ahots eta musika talde esanguratsuenak izan ditugu gurean jada, eta beste hainbat oraindik etortzeke ditugu:



Donostiako Orfeoa, Easo Abesbatza, Andra Mari Abesbatza, Musikeneko Banda Sinfonikoa, Landarbaso Abesbatza, Parisko Anaiki Abesbatza, Oskorri taldea, Kukai Dantza konpainia, Erretereria Musikaleko balleta... Aipatu guztiak, gure herriko Musika Bandaren alboan, 150 urteko bide luzea omenduz.

Baina honelako urteurrenak ospakizunerako arrazoia izateaz gain, hausnarketarako une egokiak ere badira, eta ildo horretatik abiatu nahiko nuke, 98an elkartean martxan jarri genuen egitasmo estrategikoa gogora ekartzeko. Nondik abiatu ginen eta une honetan non gauden hobeto ulertzeko. Nondik gatozen aztertzea ezinbestekoa baita, nora jo nahi dugun jakiteko.

Bost arlotan banatu genuen egitasmo estrategikoa. Lehenengoak elkarteko barne antolaketa eta funtzionamenduari erreparatzen zion.

Bigarrenak bazkide, partaide eta musikoei batetik, eta instrumentu eta partituren eraberritzeari bestetik. Hirugarrenak elkarrekin luzatutako eskaintza eta emankizun artistikoei erreparatzen zion. Laugarrenak herriko beste hainbat elkarterekin elkarlana eta partaidetza zabaltzeko eta errazteko bideak zabaltzeari. Eta azkenik, bosgarrenak euskararen normalizazio prozesuari. Ikuspegi orokor batetik abiatuta esan genezake aipatu bost arlotan gure elkarrekin, gure Musika Bandak izan duen eraldaketa, etengabeko prozesu batean datzala. Barne funtzionamendu eta antolaketari dagokionez, informatizazio, digitalizazio (artxibo eta partiturak) eta teknologia berriei egokitutako elkarte baten aurrean gaude. Horrek, noski, eragin nabarmena izan du barne antolakuntzan, eraginkortasuna eta eskuragarritasuna sustatuz. Egitasmo estrategikoaren lehen bi arloak elkartu nahi izan ditugu antolaketaren ikuspuntutik eta, era berean, instrumentu eta materialen berritze prozesuari ekin diogu.

Adibide gisa eman dezagun datu bat: egitasmoa abiatu genuen unean erabilitako instrumentu bakarren bat besterik ez dugu erabiltzen gaur egun, guztiak berriak edo berri samarrak baitira. Eraberritze hau ezinbestekoa dugu, gure musikoen maila eta eskaintza hobetze aldera. Emankizun artistikoen arloan ere aldaketa nabarmena dugu. Gaur egun, gure bazkide eta jarraitzaileen, ikuslegoaren erosotasuna eta kontzertuen kokapen egokia sakon jorratu dugu azken urteotan. Zaindu beharreko arloa genuen, kontzertu ezin hobea kokapen desegokian eskaintzeak ez baitu ezertarako balio. Gure herriko espazio gehienak aztertu baititugu (hainbat txosten luzatuz udalari), bai espazio zabalean eta bai espazio itxian, eskaintza egokitze eta hobetze aldera, emankizun mota bakoitzaren arabera. Arlo honetan aipatu beharra dago herriko beste hainbat elkarte gure iradokizunak jaso eta jarraitu izan dituztela beraien emankizunetarako, gure lana eredutzat hartuz. Bide zuzenean gabiltzan seinale.

Bestalde, herriko hainbat elkarterekin harreman eta lotura sendoa jorratze bidean aurrerapau-soak eman ditugu elkarre desberdinen eta gizarteko sektore desberdinen arteko elkarlana eta proiektu aniztasuna sustatuz. Adibiderik argiena aurtan

ospatzen ari garen urteurrenean datza, emankizunetan herriko segmentu gehienak (guztiak ez esatearren) egitarauan barne jaso ditugulako, haurretatik hasi, helduenei erreparatuz, gure gazteak ahaztu gabe. Entzulego anitz bati zuzendutako emankizun aukera zabala, alegia. Eta azkenik, euskarari dagokionez, gure hizkuntzak elkartean baitan izan duen eraldaketa erabatekoa izan da bi arrazoiengatik bereziki: bata, elkarteko arduradunen euskararen aldeko konpromezu irmoagatik eta bestea, Musika Bandako partaide gehienak, gehiengo zabala gaur egun, euskaldunak garelako.

Hauxe, 98an abiatutako egitasmoa XXI mendeari begira. Gurea den Errenteriako Musika Kultur Elkarte, EMKE bezalako elkarte batek, etorkizunera begira bere antolaketa eta eskaintza, garai berrietara eta teknologia eta funtzionamendu sistema berrietara egokituz, musika gure herritarren artean zabaldu eta sustatuz. 150. urteurrena ospatzen ari gara aurtan, eta herri osoa urteurren honetako partaide izatea nahi dugu, Musika Bandarena ez ezik, herri osoaren urteurrena baita. *Herri baten nortasuna bere kulturaren datza eta 150 urteurren hau, nortasun eta aipatu kulturaren adierazle bat besterik ez da. Zorionak herriko Musika Bandari!!*

